

## **2018KO ABUZTUAREN 23AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2018ko abuztuaren 23an, arratsaldeko 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

EAJ-PNV taldeko zinegotzi honeek ez dira bertaratu., MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN eta AITOR APRAIZ IMATZ jauna.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2018KO GARAGARRILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2018ko garagarrilaren 26an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

## **2.- 2018KO ABUZTUAREN 9AN PREMINAZ EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2018ko abuztuaren 9an preminaz egindako ezohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

## **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

220/2018.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

221/2018.- Fakturen obligazioak onartzea.

222/2018.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.

222bis/2018.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.

223/2018.- Lehen Hezkuntzako “Urkitza” ikastetxeko patioko irisgarritasuna hobetzeko obren proiektua dela-eta lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak hurrenkeraren arabera sailkatzea.

224/2018.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

225/2018.- Estalpe bat barrizteko lizentzia.

226/2018.- Zubiaurreko zubitik kiroldegirako bidea birgaitze obrak egiteko aurrekontu – memoria onartzea.

227/2018.- “34. Open Internacional Futures de Tenis Kiroleta de Bakio” lankidetz hitzarmena onartzea.

228/2018.- “Geología y Geotecnia Larrea, S.L.” enpresearen obra txostena onartzea.

229/2018.- Hargune elektrikoa iminteko baimena.

230/2018.- Nitxo baten kontzesinoa.

231/2018.- Kontratu txiki baten esleipena.

232/2018.- Marmita txapelketea egiteko baimena.

233/2018.- Ezkontza zibil baterako ahalmenak emotea.

234/2018.- Bassherri Sound System ekitaldia egiteko baimena.

235/2018.- Skate park-a barriztuteko burutzapen epearen luzapena.

236/2018.- Kontratazino Mahaiak kiroldegiaren ganean egindako proposamena onartzea.

237/2018.- Minbiziaren kontrako kanpaina egiteko baimena.

238/2018.- Andra Mari egiteko baimena.

239/2018.- Pankartea iminteko baimena.

240/2018.- Surf txapelketea egiteko baimena.

241/2018.- Surf txapelketea egiteko baimena.

242/2018.- Dokumentazinoa eskatzeko agindeia.

Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

231/2018 dekretua.

Solozarre-SUR 4 eremuko urbanizazio obra zehatz batzuen proiektua idaztea eta obra zuzendaritza beharrak egitea adjudikatu jako INFORLUR S.L SL enpreseari.

235/2018 dekretua:

Bakea eremuan dagoan “Skate park”-a barriztuteko obrak aurreko hilean, garagarrian, egiteko izan dira, baina, batetik, enpresa adjudikaziodunak hainbat obra egin behar izan dauen ezkerro, eta, bestetik, uda sasoiaren proposa ez dan ezkerro, mota horretako obrak egiteko, obrak irailaren 3an hastea erabagi da.

#### **4.- 2017KO KONTU OROKORRA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Udal idazkariak hauxe dino:

*2018ko maiatzaren 31n egindako Kontuen Batzorde Berezia 2017ko kontu orokorrari buruzko aldeko ebazpena emon eban aho batez.*

*Jarraian, espedientea, jendaurrean egon zan 15 egun balioduneko epean, 2018.07.14tik kontetan hasita, interesatuek aztertu eta alegazinoak aurkezteko; horretarako,*

*beharrezko iragarkiak ipini ziran udaleko web. orrian, herriko taulan eta 2018.07.13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.*

*Inork ez eban aurkeztu alegazinerik.*

Udaleko hiru talde politikoez espedienteak ageri dan dokumentazioa eskura izan dabenez, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira bederatzi), erabagi hau hartu dau: **2017ko kontu orokorra onestea.**

## **5.- ELEXALDE-SR6 EGOITZA EREMUAN LIZENTZIAK ETETEKO ERABAGIA HARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio eta Hirigintza Sailak, abuztuaren 7ko 847/2008 Foru Agindu bidez, behin betiko onartu zuen SUR.6-Elexalde egoitzako eremu urbanizagarriaren plan partziala; gauzak horrela, Foru Aldundiaren ebazpen hori 2008ko abuztuaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta planaren arautegi urbanistikoa 2009ko otsailaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailak uztailearen 3ko 4638/2012 Foru Agindu bidez behin betiko onartu zuen SUR.6-Elexalde egoitzako eremu urbanizagarriaren plan partziala aldaraztea, bereziki sestra azpiko lerrokadurari eta bestelako gai batzuei zegokienez. Foru Aldundiaren ebazpen hori eta aldarazpenaren arautegi urbanistikoa 2012ko uztailearen 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Bestalde, udalaren ekimenaz, plan partzial horren aldarazpenaren zirriborroa prestatu da. Hala, SR.6-Elexalde eremuan burutu ez diren azpierenetako plan partzialaren antolamendu xehatuaren aldarazpen partziala proposatzen da.

Hori dela eta, aldarazpen hori zirriborroan ezarritako helburu eta irizpideen arabera garatzen jarraitu ahal izateko, Bakioko udalbatzak, honakoa erabaki du bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira bederatzi):

**Bakioko hirigintza plangintzako arau subsidiarioetako SR-6-Elexalde egoitzako eremuan urtebeteko epean etetea era guztietako onarpen, baimen eta lizentzia urbanistikoak ematea.**

**Etete erabakia argitara emango da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 85. artikuluan ezarritako moduan.**

Horren harira, Amets Jauregizar alkate andreak, hauex adierazi du: Plan Partzialaren aldarazpena Bizkaiko Foru Aldundira bidali da eta eskatu zaio Ingurumenaren Ebaluazio sinplifikatuari buruzko prozedura hasteko.

**6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Inork ez dau eskaerarik eta galderarik egin.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 20:15ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria